

Zaintzaren iraultza



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

Iraultza txikien akanpazan parte hartu nuen uztailean, zaintzari buruzko hausnarketa egiteko. Mahaiaren inguruan bost emakume eseri ginen: Arabako etxe- eta zainketa-langileen elkarreko Laura eta Shirley; *Denon bizitzak erdigunean* taldeko Paula eta Ainhoa; eta Kukuso taldeko partaide, ni neu.

Askotan gertatzen den bezala, Shirley eta Laurak beste partaide guztiak "lurra zapaltzera" behartu gintuzten, beren errealitatearen argazki gordina erakutsi zigutenean. Oso aldarrikapen zehatzak egin zituzten: barneko langile gisako lan domestikoaren abolizioa; lan baldintzen arautzea; eta Segurantzaren Sozialaren erregimen orokorrean sartzea, beste langileak bezala. Hau da, esan ziguten esplotaziotik ateratzeko oinarrizko eskubideak ezinbesteko bermeak direla.

Sistema kapitalista bera bezalaxe, gure jendartearen zaintzaren garapena ere krisian dago; eta feminismoa hausnarketa ugari egiten ari da krisialditik ateratzeko, baina ez da erraza. Gure jendartearen antolakuntzak paradoxa sortu du: emakume batzuek ez dute zaintzaren lana asumitzen, patriarkatuak inposatu duelako; baina, aldi berean,

Agian orain arte askok daukagun bizimodua, etengabeko kontsumoan murgildutakoa, aldatu beharko litzateke, eta denbora eta baliabide gehiago gure ondokoan zaintzan inbertitu

kate zitalaren hurrengo mailan beste emakume batzuk daude, pobreagoak eta arrazializatuak, eta beraiek behartuta daude zaintzaren lana egitera baldintza prekarioetan eta esplotazio egoeran.

Erdibideko irtenbidea bilatu nahian, mugimendu feministak proposatzen du zaintzaren lanak zerbitzu publikoek bere gain hartu beharko litzaketela. Oinarrizko bi kontraesan ikusten ditut: lehenengoa, eremu publikora ekarrita

ere, sistema ekonomikoa aldatu ezean, zaintza lanak emakumeen eskuetan jarraituko du; eta bigarrena, komunitatearen erantzukizuna eta gai horren inguruan dagoen "zor soziala" desagertu egiten dira.

Bi kontraesan horietan agian beste arazo sakon bat ager daiteke: hazkundera kontrolatua zaintza eremuan ere aplikatu beharra. Hau da, beharbada utzi behar diogu pentsatzeari zaharren, mendekotasuna dutenen eta umeen zaintza komunitate gisa ez zaigula egokitzen. Agian orain arte askok daukagun bizimodua, etengabeko kontsumoan murgildutakoa, aldatu beharko litzateke, eta denbora eta baliabide gehiago gure ondokoan zaintzan inbertitu.

Hauteskunde kanpainaren ondoren argi geratu da, nire ustez, alderdi politikoek ez dutela halako eztabaidan sartu nahi, eta, beraz, sindikatuek eta mugimendu feministak beren gain hartu beharko dutela. Datorren greba feminista, horren adibide.

Alternatibak landu behar ditugu eta, nire iritziz, argi geratu behar da sistema kapitalistan zaintzea eta bizitzea bateraezinak direla. Horregatik ezinbestekoa da zaintzaren iraultza. ●



bilbon
euskaraz

17 euskaltegi, eskaintza zabala eta dirulaguntzak

Euskarari baietz

Matrikulazio epea zabalik euskaltegietan!



B

Bilbao